

## Azurmendi: gizon baten poetika

*Juan Ramon Makuso Mujika*

Filosofia irakaslea Bigarren Hezkuntzan, poeta eta editorea

### Gazte bat: gatazkaren bidezidorrean

Gazte bat gizonez inguraturik. Arantzazuko arratsalde isolatuetan. Baina, agian, bere existentzian, Gizon handi bati oihartzun bat sortu zion. Gatazka du bere bidezidorretan, bide bat oraindik ikusten ez duenean.

Pagoa geldi dago  
bidearen ertzean  
ezin du konprenitu  
nire presa bidean  
bide gora noala  
–izerdi bizkarrean–  
zergatik hain urduri  
zerbaiten ehizean?  
(*Pagoa geldi dago*, 1961)

Badirudi galdu egin naizela  
eta ez nindoan inora.  
(*Nire lurra, nire anaiak, nire ametsak*, 1965)

Bere niak, kontzientziaren biluzte bat eraikitzen ari den heinean, Jainkoari aurpegira begiratzen dio. Baina ihesi existentzial bat eraikitzen hasten da. Hitzaren sarea gordina da, poesiak gaztearen burmuina lohitu egiten du. Askatasuna behar du, gizarte bat eraiki behar da, oraindik agorarik gabeko espazioak baitira gure hiriko kaleak.

Baina atzera abiatuko naiz  
gaztetako bihotzaren bila:  
nire, lurra, nire anaiak  
nire ametsak.  
(*Nire lurra, nire anaiak, nire ametsak*, 1965)

Subjektuak prestatzen du bere ihesa, eta poesia izan zitekeen gordeleku bat. Gordeleku bat, txori errariaren modura.

Ez dakit Joxe Azurmendik poesia bere bizitzan ezkutaleku bat bezala bizi izan zuen, gorde egin baita poesia bere ibilbidean. Nago oso gutxik ezagutzen dutela

Azurmendiren poetika, baita bere ibilbidean aipatu izan denik bere poesia. Eta ez dut uste gaztetako gauza bat denik Azurmendiren poesia.

Garaia heldu da. Eta horren aurrean, beti bezala, gizakiok, gizon-emakumeok, erantzun bat eman beharrean aurkitzen gara. Eta erantzuna, gure kasuan, poesiaren bidetik izanen da. Horrela esanda, harrokeriari ateak zabaltzea litzateke; baina poesia, zerbait izatekotan, xumea, xaloa da.

Xumea izanda, leku, esparru askotara heltzen da, eta horrek arriskutsua bihurtu du. Zer bada ez ziren izan Homero, Hesiodo? Greziarrek beren poemetan ikusi, entzun, ikasi egin zuten, eta ikasterakoan jakinduriaren ur sakonetan igerian ibili ziren. Jakinduria erantzunaren bitartez heldu zitzaien greziarrei. Homeroren Ulises mitikoa da, baina funtzio bat betetzen du: erantzuna da. Erantzuna izan zen bezala Miletoko Talesena, lehenengo *physikoi*-a Aristotelesen ahoan.

## Poetaren ataka

Eta poesiak zeri erantzuten dio? Poetaren zeregina, baldin badauka, zein da?

Galdera horiek badute erantzuna: errealitateari erantzun bat ematen saiatzen dira biak. Eta galderek eta erantzunek garrantzi azpimarragarri bat daukate, gizakiaren, gizon eta emakumeen giza-izaera baldintza betetzen dutela.

Poesia eta poeta, uztartuta, gurutziltzatuta gelditzen dira bere zereginetan, bere jardueran, poeta gizakia izanik, nahitaez, bere giza izaera poesian islatzen delako.

Poesiak, poetak, hizkuntza du bere tresna, bere erreminta; hitza da bere hitsa, eta hori testigantza moduan garaietan geratuko da. Baina hori paradoxa bat da, zeren hitza izanik tresna –bere baitan giza izaeraren lekuko–, hitzetan itotzen gara, hitza uholdea delako poetaren jardunean, hitzetan geratzen garelako ezin esanik hitzetan esaten duguna. Agian kontraesanaren magalean lokarturik geratzeko arriskua dago; baina poesian ere poetok iraultzaren ibilbidea egiten dugu.

Arestian aipatu dugu poesiaren apaltasuna, eta azken lerrootan bere iraultza aipatu dugu, zeren zer eta ez da bada iraultzaileago, hitzek daukaten –esaten duguna delako, Parmenides zaharraren arabera– nahia errealitatearekiko? Poesia errealitateari hurbilketa bat delako. Hurbilketa zaila, malkartsua, baina azken finean ekintza, gizon-emakumeok egin dezakegun kausarik zilegi.

Platonengandik poesiak, poetak, kondena jaso zuen. Beharbada Platonek ez zuen ulertu poetaren hurbilketa isila, xumea. Ez du poetak errealitatearen batasuna Platonek aldarrikatzen zuen moduan ikusten, baina, bere hitzetan, poetaren hitzetan, ahalegina dago. Artifiziorik gabe, pentsamenduen erroetan sakonduz, baina jakinda errealitatearen batasunera ez zela helduko. Eta hori baieztatzeko, María Zambranoren hitzok gogora ekartzen ditugu: «Poesia izatearen aldibereko irekitze bat da barrura zein kanpora. Isiltasunean entzute bat eta iluntasunean ikuste bat da».

Eta hitz horiek hemen plazaratzen ditut uste oker bat salatzeko. Zer dela eta poesia inozokerietara baztertzen dugu? Zer dela eta poesia uzten da ametsen munduan non pentsatzen den mundua zoragarria dela? Zer dela eta Adornok esan zuen Auschwitz

ondoren ezin dela poesia egin? Hori gertatu izan balitz, Auschwitz arrazoia ematea litzateke.

Poetak, hitzaren bitartez, bere inguruko errealitatea ikertu egin behar du. Are gehiago, Heideggerren hitz hauek hori adierazten baitute: «Poesiak ez du hizkuntza hartzen lehendik baden lehen gai bat bezala, baizik eta poesia bera da hizkuntza ahalbidetzen duena».

Pintura edo margo paisajistikoan, izadia da elementu gorenetakoa bat, hori horrela azaltzen zuen bere gutunetan Carl Gustav Carusek. Eta baita Goethek ere. Horientzat, eta bereziki Carusentzat, berak azpimarratzen baitu gizakia eta izadiaren artean gauzatzen den harremana; eta baita ere zer erlazio dagoen, estetikaren, artearen eta zientziaren artean. Carusen hitzak dira: beraiengatik eta beraien bitartez, gizakiari mundua bere osotasunean argitzen zaio.

Gure proiektuan, gizakiaren ibilbidea artearen eta pentsamenduaren arteko hari finean kokatzen dugu. Eta hitzak irudikatzen du poetaren bidea, egunero jardunean; poesia eta bera izate bat den heinean, banandu ezin diren bi errealitate dira. Hitzaren hedadura, poetaren bizi-poesia.

Zer egin eman zaigun denborarekin?

## **Gizakia mundu ireki batean**

Munduratu den zerez geroztik, gizakiak badu egitekoa. Errealitate baten aurrean aurkitzen da. Berrirakurtzen ari naiz Albert Camus-en *Izurritea*. Bitxiak izaten dira liburu baten irakurketak. Uneak, lekua, ezberdin egiten dute hura. Eta Camusena bereziki. Izurritea gaixotasun bat da. Eta gaixotasunak ezberdin egiten gaitu. Gizakiarentzat, gaixotasuna beste bizitza bat da. Gaixotasunak gizakia estigmatizatzen du. Marka bat ezartzen dio. Egileak berak, hau esaten du: «gaixo batek bakardadea behar du». Egoera horretan, hau da, bere bizitza berri horrek gaixotasuna bidaide duenean, beste pertsona baten aurrean jartzen da. Nabarmen, beste bat da. Ikasi egin behar du orain artekoa izan denak ez duela balio. Azal berri batek estaltzen du bere gorputza, eta estaldurak gorputza, bihotza berriak bihurtzen ditu. Ispiluaren aurrean beste bat zara. Zaila egiten da ezagutzera irudi berri hori, baina era berean, denborak ez du etenik, eta egoerak eskatzen du galtzerdiari buelta ematea. Dena oso azkar izanda, gaixotasunak ez du geltokirik, non bertan bankuak hutsik dauden beste bizitza baten zain. Baina gaixotasunak ez dauka gordeta zuretzat leku bat. Irentsi egiten zaitu. Ez dizu uzten denbora erabakiak hartzeko. Zu eta gaixotasuna bat zarete. Batasun horretan ikasi behar duzu bizi berri bati hasiera ematen. Beste bat, baina bizitza.

Azurmendiren poetikaren unibertsal bat bizitzaren heriotza izan da. Heriotza ezin da banatu bizitzatik; gizakia, bere bizitzaren ispiluaren aurrean, paradigma bat da. Bere heriotza ezin da inondik banandu bere bizi existentziatik. Gizakia beti bizi da bere herioa besarkatuz. Ez da besarkada behartu bat. Gizakia erditzearen ondoren, gizon-emakumeen bizitza esan daiteke beti egon dela mugan. Amildegia haren. Haria fina da. Edo izan daiteke ere ikusezina, eta gure egunerokoan, beharbada, ikusezinari helduta bizi gara.<sup>1</sup> Melankolia. Eta era berean bizitza eta herioaren arteko batasuna.

Baina hutsuneak agertzen dira. Oteizak ikusten zuen hutsa. Eta Arantzazun, Azurmendiren ibilbidearen marka ez da agortzen hutsunean. Eta hutsaren hurrenez ez gara ohartzen; bai, aldiz, gure barneko ustezko jainkoa agertzen den unean.<sup>2</sup>

Ez zait erraza hau guztia barneratzea. Ene mozkorraldiak begirada, arrazoimena lausotuta dauzka. Baina ez dut ahanzturarik. Eta oroimenak, beti, naizen hau gogorarazten dit ez naizela. Eta nire lekura etortzen naiz. Gizakiena. Lurrera. Bai, lurra estaliko bainau. Edo suak hartu. Eta errauts izan.

## Aberearen geografia

Ezin dugu ahaztu Azurmendi gaztearen geografia. Zergatik kokatzen du bere burua abere hutsaren metaforan? Badago, gure bizitzan, *physis*-a, natura, aurrean daukagun hori, dialektika batean murgiltzen gaituena. Adibide arrunt bat jartzearen, etxe atariko arrosoarena. Bere kideetako bat, bereziki. Oraintxe hasi da bere burua agertzen, munduratzen, bizitza arnasten. Gizakiak begiradarekin itzuli dio diosala, baina gehienbat, bien artekoa, gehiago izan da pentsatzearena, berriro hemen! Beste behin! Arrosak gorriak dira, odol biziaren kolorekoak. Eta txertatu egin da gaztearen baitan bizi-kolore horren indarra. Ezin izan dio ihes egin indar horri; udaberria, udararen atarikoak, bat egiten baitute, biak ala biak, buruan duen sentimenduarekin: berriro etorri da arrosoa, bere arrosa gorriekin, bere arantzekin, erakustera bion artekoak hor jarraitzen duela, biotako batek huts egin arte, badakielako hori dela gizakiaren historiaren laburpena: biok hor jarraitzea, Azurmendiren historian. Gurean ez dago mesfidantzarik, badakigulako ikusi bezain pronto pizten dela gure historia. Ez da historia handia. Hori badakigu, baina historia guztiek badute bere lekua, espazioaren hutsa infinitua baita. Handitasun horretan, badakigu guk gure leku txikia badugula. Betetzen dugulako gure hitzordua, jakinda hitzordua ez dela betirako. Beharbada horrek egiten du handia gure artekoa, badakigulako biotako bat agertzen ez den egunean, ezinagatik izan dela. Ez dago gezurrik.

Ez dago gure gogoan, hemen eta orain, gure begirada ezkortasunaren eremuan jartzea.

Azurmendiren imajinarioan, eta bere bere ibilbide poetikoan, Nietzscheren oihartzuna saihestezina da. Bere barrutik bizitzari bai<sup>3</sup> esaten dio, jakinda bizitza adaxka bat dela, edozein unetan apurtuko dena. Baina hori da bizitzaren bizi poza: une hori ez dela bizitzaren baitan, ez behintzat norberaren bizitzan. Bizitzen ari garen une orotan, ez da adaxkaren *krak*-a entzuten. Adaxka hor dago, tente; bizitzaren ikurra da. Begi aurrean dagoen limitea da, mugarik gabeko itzala. Bizitza bizitzen da. Ez da ura esku artean, ihes batean dabilena ahurrean korrika. Esku artean dugun lorea da, begiratzen diogun bakoitzean, usaintzen dugun bakoitzean, bere keinuaren beroa eskularrua da. Baina badakigu eskularrua hiribideetan galtzen dela, galtzada-harrian, bakardadearen geltokian pausatzen dela. Eta hor geratzen da norik jaso zain. Horregatik ez dugu nahi bizitzak kale kantoi batean ostatu hartzea, ostatu horretan ikusezina baitzara. Bizi, bizitzaren zelaian, jakinda joko eremu horretan espazio amaigabe baten aurrean egunero zuzendu beharko dugula begirada, askotan kolorerik gabeko paisaia aurkitzeko.

Baina sekula ez behi bat trenaren aurrean bezala. Ez dugu nahi bizi bizitza usaindu gabe, besarkatu gabe, eta hori oso nabaria da Azurmendiren poesian. Ez du onartzen bere burmuinetan inongo haririk, beste baten eskuetatik tiraka ari direnak. Egunero bizitzari egun on esan, jakinda diosalaren erantzuna agian ez dugula jasoko. Hori ere bizitza baita.

## Gizakiaren etxea

Gizakiaren etxea, Azurmendiren etxea, eraiki zuen denbora izan zen;4 baina denbora ez da. Gizakiaren konstrukto bat da, geure buruaren emaitza. Gizakiak denbora behar du, denboraz jabetu nahi du, baina denboraren irudikapena baino ez dugu egiten. Sukaldeko ordularian eraikitzen ditugu denboraren orratzak. Orratzak ez dira gustuko bidaide. Bere mugimenduari so zegoen Azurmendi gaztea poesia lantzen zuen bakoitzean. Begiek ez diote nahi bira horri jarraitu. Paretaren zuriak beste denbora bat irudikatzen du. Geldiunearen denbora. Geldirik zegoen. Orduak jada ez daude gaztearen baitan. Albert Einsteinen laguntza behar zuen. Ez zitzaion iristen bere erlatibitate. Arantzazuko egonaldian, espazioa apurtzen ari zitzaion. Espazio horretan bere denborak egin zuen. Beste denbora bat beharko zuen. Ura ihesi dabil denbora horretatik. Urak ez du nahi markarik bere isurian. Agian begitantzen du ez daukala hain urruti bere askatasuna, benetan ez dagoela ustezko denboraren sareetan. Uraren bizitzan zulo asko baitaude. Zulo horiek ez dute ulertzen zergatik eraikitzen den lurtean denbora. Lurrak estali egiten du gizakiaren, gaztearen izana. Edo haizearen segundoak biziaren geltokiak dira. Baina geltoki horietan ez dago trenarentzat ordularirik. Horregatik, beti, tren geltokiak hutsik daude. Geltokietan ez dago lekurik denborarentzat. Dena gelditu da.

Eta hori, adibidez, gertatzen da elurra egiten ari den bitartean, bere usaina iristen zitzaionean, eta leihoan itsasten du bere begirada. Hori guztia gertatzen da gure bizitzaren une batean, Azurmendiren egonaldian. Eta mundu geldu horretan, elurtea gauzatzen den une horretan, ez da beste ezer gertatzen. Edo bai.

Demagun espaloitik emakume baten irudia dugula begi bistan; aterkiak biltzen du bere gorputza koroa baten modura. Ibilera geldoa du; bat egiten du elur maluten abiadurarekin. Bere aztalak bota beltz batzuek estaltzen dituzte, eta beroki margodun batek bere belaunak ditu muga. Botak eta berokiak irudimenaren muga marrazten dute. Bere burua, bere ilea txano batek hotzetik babesten ditu. Bere liraintasunak ezin hobeki bat egiten du kaleko linealtasunarekin. Paisaiaren nahasteak bere eguneroko errealitatea adierazten du neurri batean: «Hau guztia niretzat da. Ene baitan geratuko da». Emakumearen figura gizakiaren begi aurretik desagertzen da. Beharbada, eguneroko gertakizunak ez dira geratzen, une horretan, argazkiak bezala. Denbora ezin da gelditu; hatzen artetik, urak bezala, ihes egiten baitu.

Eta, gure baitan, ideia hau oso nabarmena da: egunerokoa salbuespena da. Pentsa dezakegu gazte baten baitan horrelako irudiak hegan dabilzala. Gazte baten ilusioak ez du mugarik. Horrelako irudiak irudika ditzake eta poemetan islatzen dira, ia-ia bizitzaren ipuin baten antzera: ez zitzaion ahazten esaldi hura, leihotik baztertu eta

egongelako *voltaire*-an esertzerakoan. Hori gogoko zuen bakarrik zegoenean, bere gelako pareten artean, ikustea bere bizitzako pasarteak margo erakusketa bateko koadroak bezala. Pausoz pauso, erakusketa aretoan zehar koadro bakoitzaren aurrean jarri, eta bertan murgildu. Eta bere bizitzarekin hori egiten zuen. Berarentzat ez zen arrotza. Beti gustatu baitzitzaion, ume garaietan bezala, lagunekin jolasten zuen bitartean, atsedenaren aitzakian, bazter batean gelditu eta begiratzea. Lagunen oihuak, barreak, kaleko jendearen ibilerak, joan-etorriak behatu. Eta esaldi horrekin erantzun zion, tabernaren erakusmahaietan kafe baten esperoan zegoen bitartean, tabernariari.

Azurmendik ez zien itxaron bizitzak dituen markei. Berak eraiki baititu, bere gogoetekin, bere poesiarekin, etengabeko markak.

### **Atsegina, adiskidetasunean**

Denboran jauzi bat egingo dugu; bizitzak badu lorategiaren isla moduko bat, baina, oraingo honetan, beste lorategi batekin topo egin nahi dugu. Epikuroren lorategia. Denboraren orratzean bidaiatu dut, eta Epikurori agur bat ematera joan gara. Merezitako agurra. Bai, berak bere pentsamenduan bi ideia utzi baitzizkigun: atsegina eta adiskidetasuna. Eta berriro Azurmendiren beste isla poetiko bat azpimarratu behar dugu. Beharbada, gure bizitzetan arreta gutxitxo, hanka puntetan, oharkabean, esku artetik igarotzen dira mota horretako ideiak. Epikurok gizakien arteko adiskidetasuna goraiatzeko zuen, atseginen artean jartzearaino, gertakari gozagarriena bezala ulertuz. Gure mundu arrotzean eta aurkako giroan, esaten zuen, hori zela babesleku bat, eta ez hainbeste lagunek norberarengatik egin dezaketengatik, baizik eta badakigulako, behar izanez gero, hor egongo direla. Eta ezin utzi aipatu gabe beste ikuspegi epikurear bat. Berak, bizitzeko, bazeukan helburu bat: atseginean gozatzea. Jakin eta partekatzea. Hirurak oso estuki erlazionatuta daude: bizirik egotearen atsegina gozatu; jakin bereizten zer den benetan baliagarria, eta bizitza zein ezagutza adiskidetasunean partekatu. Eta hori Azurmendiren obran atzeman daiteke.

Gizakiaren bizitzan, errealitatea eta desira bi zirkunstantzia dira. Bi hitz horiek, bi kontzeptu horiek, indar handia daukate gizakiaren ibilbidean. Esan daiteke, gizakiaren bizitzan, gure bizitzan, nolabaiteko marrak direla, marka batzuk osatzen dituztelarik. Errealitatea eta desira. Askotan pentsa daiteke, bi marra horiek ez ote diren gure bizitzetan gehiegi nahasten. Errealitatea bat izanik, desira gurutzatzen zaigu. Errealitateari ez diogu uzten bere bidea egiten, eta nolabaiteko zangozaba bat asmatzen dugu. Luis Cernudak bere ibilbide poetikoan erakusten digu zer latza den frustrazioa. Zer zaila egiten den gauzatzea barruan daukagun desira. Askotan, norberak nahi duen hori lortzeko daukagun aukera baino handiagoa izaten da desira. Eta orduan asegabetasunak margotzen du gure arima, gure gorputza. Adibide moduan, Luis Cernudaren homosexualitatea bere garaian ez zen ulertzen. Eta, gaur ere, gizarte askotan, horrela da. Desirak bide batetik doaz, baina errealitatea oso gordina da. Ikastetxe bateko neska eta mutil homosexual bati galdetu baino ez genuke egin behar. Ea horien desirak errealitatean nola gauzatzen diren.

Poeten letrak. Poeten poesiak. Gizakiaren historian kantu bilakatzen dira. Azurmendiren beste ñabarduretako bat, ia ezezaguna dena. Eta letra horiek kantetan bidaiatzen dute gizon-emakumeen arimetan. Hainbeste bidaiatzen dute, herri, hiri, geografia baten ereserkiak izatera iristen direla. Esloveniako ereserkia: Franco Preseren poetaren bertsoak, bere poesia, bihurtu dira esloveniarren kantu nazional. Robert Burns poeta eskoziarrak 1788an poema bat idatzi zuen, bere hizkuntzan, eskozieraz, eta urteen poderioz Eskoziako kanta bat bihurtu zen. Eskoziako patrimonio bat da. Poemaren izenburuaren itzulpen azkar bat eginez, «garai zaharreatatik» izango litzateke. Literalki, «duela denbora asko» esango genuke. Kanta agurretan, hiletetan abesten da; esan daiteke nahiko une gogoangarrietan abesten dela Burns-en poesia kantu bihurtua. Poemaren oinarrian adiskidetasuna dago. Garai bateko lagun zaharren inguruko ahanztura. Iraganean bizi izandako sentimenduak. Anaitasuna, senidetasuna azpimarratzen ditu poemak. 'Eskua luzatu' esaten da laguntza eske gabiltzanean. Adiskideari eskua luzatzen diogu bere eskuak gurearekin topo egin dezan. Gertatzen da eskua luzatzen dugula eta erori egiten dela. Eskuak eraikitzen duen sokaren beste muturra ez dago. Eten bat eraikita dago. Hutsunea. Baina poeta eskoziarraren poemak dioen bezala, ahaztu behar al ditugu lagun zaharrak? Edo garai zaharrak?

Ez dugu esango Azurmendiren lagun zaharrak, batez ere poesia arloan, ez direnik aipatzeko modukoak. Zer esan, bestela, berak eskainitakoa Bitoriano Gandiagari, ez poemetan, baina bai pentsamendu poetiko batean?

Azurmendiren bizitzan eta poesian ikus daiteke hori, ezinegon baten argazki bat eraikitzen ari zela –existentziala zein intelektuala–. Bidaia bat. Hiria begien aurrean. Ezezaguna da paisaia. Dena da arrotza, eta poetak badu sentimenduentzat ate bat sartzeko. Hasieran, ezjakintasunak dena atontzen du, baina jakin-minak eramaten du gizakia iparrorratz eder batetik. Begiak irekita, dena da ezberdin. Erraldoi modukoak dira etxeak. On Kixote oroimenean. Etxe orratzak gorputz handi batzuk dira, hezurdura handikoak. Zementuzko alfonbrak oin azpian. Garapen horren aurrean, txiki geratu da gizona. Garapen hori ez da egokia bertso, poema txiki eta isil batentzat. Non gorde da gizatasuna? Gorde baino gehiago, ez ote da geratu irentsia? Munstro bat eraiki du zibilizazioak, eta gizonak, horren aurrean, mundu berri horren aurrean, bere bizitza moldatzen du. Pentsatzen du: «agian horrela izan da beti». Beti? Eta zergatik errepikatzen du gizakiak bere eraikuntza? Ez da ohartzen bere baitan badagoela betiereko itzulera bat. Edo agian betierekotasuna bere ezaugarri ezkutu bat dela. Irudimenak bere jaioterrira eraman du. Gipuzkoako Zegamara. Lur sailak dira hor nagusi. Bakardadearen isla. Uhartetarik bere espiritua landu du. Eguzkiaren urdinak bere poesia garbitu du, bere zirriborroen gardentasuna eraikiz. Paperean geratu da hiria. Alemania.

## Poetikotasunaren isla

Amaitzeko, gure ekarpena Azurmendiren poetikan agortzen da. Galdetzen didatenean poesiari buruz zer pentsatzen duan, edo zer funtzio bete behar duen poesiak, Auden poetaren hitzok datozkit burura: «Nola ezagutu dezaket pentsatzen dudana ez badut

ikusten esaten dudana?». Oso erantzun biribila. Poesiarekin hori gertatzen zait. Poesiak sortzea dakar bere errainuetan, bere esanahia sortzea baita. Eta sorkuntza prozesu horretan, poetaren senak hartzen du protagonismo osoa. Senak dioena, barrukoa, barne-barnekoa kaleratzen du. Eta hemen berriro Audenen hitzak gogoratu beharrean gaude: «Nola ezagutu dezaket pentsatzen dudana ez badut ikusten esaten dudana?». Pentsatzea eta esatea lehia bizian daude poesiaren sorkuntzan, poesian hitzak baitu protagonismo osoa. Poemaren sorkuntzan, poetak hitzarekin jolasten du, hitza behar du harilkatu. Eta hitzekin beste elementu bat askatzen du poetak: bere sentimenduak. Eta sentimenduak oso bereak direnez, poema aditzera ematen duenean, sentimenduak jada ez dira bereak, eta hor bestea, zu, zuek azaltzen dira. Kontraesana badirudi ere, poetak hitzaren bitartez errealitatea atzeman nahi du, errealitateari erantzun, eta hor ezinbestekoa du hitzen bidez erantzutea. Errealitateari erantzuteko, beraz, poetak hitza du tresna, hitza da errealitatea eta bion arteko zubia. Baina zubia ez da igarobide lasai bat. Zubi horretan borroka asko daude, poetarentzat ez baita erraza errealitatea atzematea dagokion hitzaren bitartez. Eta hau izango da beti poetak izango duen aldapa malkartsua. Eta borroka hori non hasten da? Erantzuna hauxe litzateke: liluran, gizakia liluraz betetzen baita aurrez aurre daukanarekin. Eta lilurak erantzun anitz dauzka. Eta bat poesia da. Eta poesia artearen barruan kokatzen da, eta arte oro, edo behintzat artearen jarduna, Goetheren hitzak gogoratuz, hau da: «artearen jardunik gorena eta bakarra, forma ematea da». Poesiak, gizakiak, poetak, bere hitzekin erantzuten duenean, forma ematen dio errealitateari. Horixe Azurmendik egin duena.

### Oharrak

1. Anne Sexton, bere bizitza, paradoxa horretan igaro da. Ez zuen jakin noiz bizi izan zen. 1966an, *Bizi zaitez edo hil zaitez*, eta 1969an *Maitasunezko poemak* gogoangarriak idatzi zituen. Lehenengoan bertso hauek irakur daitezke: «Horregatik esaten dut Bizi/ eta ene itzala hiru aldiz biribilean dabil»; eta hauexek bigarrean: «Gauean bizirik nago/ Goizez hilik/». Edonor Anne Sextoni buruz mintzatzen denean, beti bere ibilbidearen azken hatsetik hasten da. Bere heriotzatik. 1974an, bere buruaz beste egin zuen. Baina hori ez zen izan bere azken poema. Anne Sextonen bizitza ezin da ulertu herioaren kidetasunik gabe.
2. Egokia da hemen Juan Ramón Jiménez-en hitzak gogoratzea: «Y yo me iré. Y se quedarán los pájaros cantando».
3. F. Nietzscheren *botere nahimena* gogoan.
4. M. Heideggerren *Izatea eta denbora*.

## JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea  
 Gudarien etorbidea, 29  
 20140 ANDOAIN  
 943 21 80 92  
 jakin@jakin.eus  
 www.jakin.eus